



SIRHA 2019

Informazio gehiago:

Lucía de Artaza

lucia.artaza@camarabilbao.com

Data: 2019ko urtarrilaren 26tik 30era arte

Tokia: Eurexpo Lyon, Frantzia

Maiztasuna: Bi urtean behin

Norentzat: banaketako profesionalak,

Inportatzaileak/esportatzaileak, retail,

banaketa handia eta HO.RE.CA kanaleko

espezialistak

Izen-emateko epea: 2018ko ekainaren 29a

Azokaren web gunea: www.sirha.com

DEIALDI HONETAN:

Azokaren izaera

Parte hartzeko baldintzak

Parte hartzeko eredia eta kostua

Eusko Jaurlaritzarekin parte hartzea

Eskainitako zerbitzuak

Izena emateko formularioa

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, Euskal Elikadura Industria kanpoan sustatzeko ekintzen barruan, laugarren urtez jarraian euskal enpresen parte hartze

multzokatua antolatu du **SIRHA 2019**, Nazioarteko Ostalaritza, Catering, Sukaldaritza eta Elikadura Azoka. SIRHA azoka **Lyonen izango da, 2019ko urtarrilaren 26tik 30era.**



Erakusteta eremua: 132.000 m² baino gehiago

Erakusketariak 2017an : 2.984

Bisitariak 2017an: 207.930, 2015ean baino %10 gehiago. Hoietatik 29.778 nazioartekoak, 132 herrialdekoak, eta 25.469 chefak

Azokaren webgunea: www.sirha.com

AZOKAREN IZAERA

Frantzia ondoan dugunez eta horren azpiegiturak direla-eta, estrategikoki kokatuta dago gure esportazioetarako, eta Europako beste herrialdeetarako ate ere bada. Hirurogei milioi inguru laguneko merkatua du, eta lehen helmuga da Espainiako elikagaien esportaziorako; gourmet merkatu nagusietako bat dela esan daiteke, alegia.

Kontserbako elikagaien eta janari prestatuen Frantziako kontsumoa nazioko produkzioa baino handiagoa da; horregatik, etengabe ari dira handitzen horrelako produktuen inportazioak. Arrain kontserbek posizionamendu ona dute. Heltze fasean egon arren, kontsumo maila altuan mantentzeko berezitasuna dute. Plater prestatuen sektorea merkatuko gourmet nitxoan dago, horren kalitate eta prezioagatik. Gozoek eskaera handia dute Frantzian, eta garrantzi handia ematen diote hainbat produkturen jatorriari, kakaoarenari eta txokolateenei besteak beste.

SIRHA azoka nazioarte osoan da garrantzitsua elikagai industriarentzat; profesionalentzat da eta berebiziko garrantzia dute gastronomiak eta gourmet produktuek. Bi urtean behin izaten da azoka, eta elikadura sektoreko ordezkariak parte hartzen dute, joera eta produktu berriak deskubritzeko, merkatuaren aurrerapenak ikusteko eta hornitzaile berriak ezagutzeko. Elikadurak ez ezik, ostalaritzak eta sukaldaritzak ere leku berezia dute.

EUSKADI BASQUE COUNTRY STANDA

Eusko Jaurlaritzak SIRHA 2019 azokan 120 m²-ko gunea izango du parte hartzeko interesa duten Euskal Elikadura Industriako enpresentzako. Standa Nazioarteko Pabiloian egongo da kokatuta.

Eusko Jaurlaritzak azokan parte hartuko du betiere enpresa parte hartzaileen gutxieneko kopuru bat baldin badago. Eusko Jaurlaritzako espazioa mugatuta izango da. Enpresa gehiagok erakusten badute interesa, hautaketa izena emandako hurrenkera zorrotzaren arabera egingo da.

ERAKUSKETA EREMUA: 132.000 m² baino gehiago

ERAKUSKETARIAK 2017an: 2.984

BISITAK 2017an: 207.930, hoietatik, 29.778 nazioartekoak, 132 herrialdekoak eta 25.469 chefak.

SARIAK: Bocuse d'Or, Pastelgintzako Munduko Kopa eta Cateringaren Europako Kopa; beraz, mundu osoko chefak erakartzen ditu azokak, besteak beste.

Azokan parte hartzeko baldintzak

Parte hartzeko konpromisoa EAEn egindako produktuak Ebaluazio-inkesta

Ekitaldian parte hartzen dute egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa produktoreek bakarrik, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Elikadura Industrien Erregistroan izena emanda badaude.

Azokaren aurretik

- Enpresaren ordezkari baten aldetik joateko konpromisoa eta kuota ordaintzea; beraz, **Euskadiko pabiloian sartuko dela jakinarazten denetik ezingo da ekitaldian baja eman**. Halabeharrezko kasuetan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren portzentaje bat itzultzeko.
- Ekitaldia irekitzeko bezperan enpresak derrigor egon behar dira, esaten zaien orduan merkantzia jasotzeko, eta beraien erakustokien dekorazioa amaitzeko, jardunaldia hasi baino behar besteko aurrerapenez.

Azokan zehar

- **Euskal Autonomia Erkidegoko produktuak** baino ezingo dira erakutsi. Ezin izango da, inola ere, beste autonomia erkidego batzuetako produktuak aipatu, ezta aurkeztu ere.

- Stand-etan azokako egun guztietan eta zabalik dagoen ordu guztietan eman behar da arreta.

Enpresa batek azokaren ordutegi ofizialean standeko arreta emateari uzten badio, salbuespenezko arrazoi justifikaturik gabe, azokaren hurrengo ediziorako lehentasunezko eskubidea galduko du (izena ematearen hurrenkera, etab.). Haren eskariari bakarrik erantzungo zaio baldin eta leku librerik badago izena emateko eta ordaintzeko datetan egindako gainerako eskari guztiei erantzun eta gero. Halaber, enpresa batek edo batzuek stand-a abandonatzearen ondorioz Eusko Jaurlaritzak –presentzia bateratuaren antolatzailea den heinean– zigorren bat jasotzen badu, zigor hori berehala jasanaraziko zaio arau haustea egin duen enpresari edo enpresei.

- Azoka amaitzerakoan produktu guztiak behar bezala jaso eta stand-eko elementuak entregatu, jaso ziren egoera berberetan. Erabat debekatuta dago stand-etik inolako elementurik eramatea (grafikoak, aulkiak, lanparak...). Azoka amaitu eta gero elementuren bat falta bada, hori zuzenean fakturatuko zaio enpresa erakusleari. Azokaren aurretik inbentario bat egingo da, elementu guztiak adieraziz, eta amaierako beste inbentario bat, azoka bukatu eta gero.

Azokaren ondoren

- **Ebaluazio inkesta** bete eta eskura eman, azokatik joan baino lehenago.

Azokan parte hartzeko eredua eta kostua

PARTE-HARTZE EREDUA

Parte hartzeko bi aukera eskaintzen dira:

Stand INDIBIDUALA eredua

Stand BIKOITZA eredua

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailetik EAEko lehen sektorearen produktua eraldatu eta merkaturatzen duten enpresen parte hartzea bultzatuko da.

PARTE-HARTZE KOSTUA

Enpresa bakoitzak justifikatu beharko du zein motatako enpresa den. Horretarako, eta izena eman aurretik, ezinbesteko izango da **lehengaien jatorriari buruzko Zinpeko Deklarazioa sinatuta eta zigilua jarrita** aurkeztea.

Aldiz, ez dute Zinpeko Deklarazio horretan jasotzen den taula bete beharrik izango Jatorri Izendapenak, Jatorriko Deitura Babestua (JDB) edo Kalitate Ziurtagiri ofizialeko marka duten enpresek. Soilik baimendu beharko dute Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean daudela egiaztatzeko baimena.

Enpresen sailkapena:

1 Motako Enpresa

Batez ere Euskadiko lehengai hornitzen diren enpresak. Enpresak produktuaren jatorria egiaztatu beharko du.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen diru laguntza %80 izango da, eta kostuak honela geratzen dira

Stand Indibiduala: **1.890 € + BEZ %21 = 2.287€**

Stand Bikoitza: **3.780 + BEZ %21 = 4.574 €**

2 Motako Enpresa

Euskadin behar duten lehen sektoreko produktorik egon ez eta Euskaditik kanpoko lehengaiak erabiltzen dituzten enpresak.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen diru laguntza %60 izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

Stand Indibiduala: **3.000 € + BEZ %21 = 3.630 €**

Stand Bikoitza: **6.000 € + BEZ %21 = 7.260 €**

3 Motako Enpresa

Batez ere Euskadiko lehengai hornitzen EZ diren enpresak, Euskadin behar duten lehen sektoreko produkzioa egonda ere.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen diru laguntza %40koa izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

Stand Indibiduala: **4.400€ + BEZ %21 = 5.324 €**

Stand Bikoitza: **8.800 € + BEZ %21 = 10.640 €**

Oharra: stand bikoitza esleitzeko irizpidea, enpresa parte hartzaileen kopurua izango da.

Parte hartzeko **kuota bi zatitan** ordainduko da, baina **faktura bakarra** izango da:

- Zenbatekoaren %50 + %21 BEZ izena emateko orduan eta espazioa erreserbatzeko kontzeptuarekin.
- Gainerako zenbatekoa jardunaldia egin baino 60 egun lehenago ordaindu beharko da.
- Zenbateko osoa jasoko duen faktura bakarra espazio erreserbaren lehen ordainketa jasotakoan bidaliko da.

Izen-emate formularioa

Ordainketa agiria eta Zinpeko deklarazioa

Izen-emate epea: 2018ko ekainaren 29a

Leku kopurua mugatua denez, gomendatzen dugu lehenbailehen izena emateko formularioa betetzea eta ordainagiria bidaltzea zinpeko deklarazioarekin batera **lucia.artaza@camarabilbao.com** helbide elektronikora.

Enpresa parte hartzaileen hautaketa izena emateko dokumentuak jasotzeko hurrenkeraren arabera egingo da.

IZEN-EMATE FORMULARIOA BETE



Formularioan eskatzen den informaziotik, datuak zehazki transkribatuko dira azokaren katalogo ofizialerako eta prestatzen diren gainerako elementu promozionaletarako.

ORDAINKETA AGIRIA BIDALI

Kontu zenbakia: **ES49 3035-0179-61-1791069900** Laboral Kutxa HAZI Fundazioaren izenean

Kontzeptua: "Enpresaren izena + SIRHA 2019"

HAZI Fundazioko Finantza Departamentuak dagokion zenbatekoaren faktura igorriko du, izena emateko epea amaitu eta parte hartzea baieztatu eta gero.

Izena emateko epea: 2018ko ekainaren 9

ZINPEKO DEKLARAZIOA BIDALI



Izena ematen duten enpresek lehengaien jatorriari buruzko **Zinpeko Deklarazioa sinatuta eta zigilua jarrita aurkeztea** beharrezkoa da.

Izena ematearen formalizazioa Parte hartzeari uko egin

GARRANTZITSUA: Izen ematea formalki egindakotzat jotzeko, izena emateko formularioa behar bezala beteta eta ordainagiria bidali beharko dira zinpeko deklarazioarekin batera, izen ematearen datan, ondorio guztietarako, ordainketa egin den eguna agertuko delarik.

Eskatutako dokumentuak bidaltzeak EZ DU ESAN NAHI enpresak Eusko Jaurlaritzaren pabiloian parte hartuko duela, izan ere, gutxieneko enpresa kopuru bat egon behar da hori egiteko. Eusko Jaurlaritzak izen ematea onartu den jakinaraziko du.

Enpresak faktura jaso eta gero, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Stand-an sartu delako jakinarazpena jago eta gero, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartzen:

- Enpresa erakusleek eskatutako gunea Azokaren Antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutako gunea baino handiagoa bada, hautatu ez diren enpresek eskubidea izango dute aurrez izena emateko kuota itzultzeko.
- Eusko Jaurlaritzak halabeharrez edo nahiko partaidetik ez dagoelako parte hartzea bertan behera uzten badu, enpresek eskubidea izango dute ordaindutakoaren %100 jasotzeko.



- 1) Espazioaren kontratazioa
- 2) Merkantziaren garraioa
- 3) Stand-aren dekorazioa

El Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras del Gobierno Vasco, a través de la Fundación HAZI, facilitará los siguientes servicios:

ESPAZIOAREN KONTRATAZIOA

Espazio promozional batekin parte hartuko da, eta hori enpresa ko-erakusle bakoitzerako pertsonalizatutako stand indibidualetan eta bikoitzetan banatuko da.

MERKANTZIAREN GARRAIOA

Eusko Jaurlaritzak merkantziaren bidalketa bateratu bat antolatuko du esleitutako garraiolari ofizialak adierazten duen lekutik merkantzia standean bertan entregatu arte.

Garraiolariak egingo du merkantzia bidaltzearen kostuaren faktura eta enpresa erakusleak ordainduko du oso-osorik.

Eusko Jaurlaritzak ez du erantzungo bidalketa bateratutik kanpo bidaltzen diren merkantzien harreraz ezta segurtasunaz ere.

Esaten zaien orduan, enpresak derrigor egon behar dira merkantzia jasotzeko, eta beraien erakustokien dekorazioa amaitzeko, ekitaldia hasi baino lehenago.

Adierazitako orduan merkantzia jasotzera agertzen ez diren enpresek zigorra jaso dezakete.

STAND-AREN DEKORAZIOA

Stand-a hornitzeko dekorazioa eta oinarrizko altzariak uniformeak izango dira EAEko standeko erakusle guztientzat, eta, edonola ere, hau egongo da:

Stand Indibiduala: 1 mahai eta 4 aulki, erakusmahai, enpresa erakuslearen errotulua, konexio elektrikoa, biltegi komuna ur hargunearekin eta Izozkailu txikia

Stand Bikoitza: 2 mahai eta 8 aulki, 2 erakusmahai, enpresa erakuslearen errotulua, konexio elektrikoa, biltegi komuna ur hargunearekin eta 2 Izozkailu txiki.

Oharra: Stand indibidual bakoitzean ez dira harraskak sartuko. Gune komun batean jarriko dira. Harraska norberaren standean jarri nahi duten enpresek stand muntatzeko ardura duen enpresari dagokion kopurua ordaindu beharko diote.

Stand-etako oinarrizko altzarietan, elementu elektrikoetan edo elektrizitateko beharretan egin beharreko aldaketa oro, horien hazkundera edo aldaketa eragiten badu, ko-erakusle bakoitzak zuzenean kontratatuko du, eta bere gain hartuko du gehitutako kostua dekoratzailearekin, zeinak zuzenean fakturatuko dion zerbitzua.

- 4) Hortz kamerak eta beste etxe-tresna elektriko batzuk
- 5) Azokaren katalogo ofizialean sartzea
- 6) Stand-a mantentzeko lanak

HOTZ KAMERAK ETA BESTE ETXE-TRESNA ELEKTRIKO BATZUK

Hotz kameren eta beste etxetresna elektrikoen alokairua erakuslearen kontu izango da. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak koordinatuko du zerbitzu horren kontratazioa, eta hornitzaileak zerbitzuak zuzenean erakusleari fakturatuko dizkio.

AZOKAREN KATALOGO OFIZIALEAN SARTZEA

Eusko Jaurlaritzak azokara joaten diren enpresa erakusle guztiak azokaren antolakuntzak argitaratzen duen katalogo ofizialean agertzeko egin beharreko tramite guztiak egingo ditu; bertan ekitaldiko erakusle guztiak agertzen dira erregistratuta (izena emateko fitxan jasotako datuak agertuko dira). Halaber, informazio hori atzerriko erosleekin bilera agendetan parte hartzeko interesa adierazi duten enpresak hautatzeko erabiliko da.

STAND-A MANTENTZEKO LANAK (garbiketa, elektrizitatea, ura...)

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen ditu garbiketako zerbitzu orokorrak, elektrizitatea, ura, etab., eta, oro har, standa egoki mantentzeko lanak.

Stand bakoitzerako potentzia elektrikoko tope batzuk eta gehieneko kontsumobatzuk egongo dira, eta horren berri jakinaraziko zaie ko-erakusleei parte hartzea prestatzeko tramiteak hasten direnean. Enpresa erakusleren batek tope horiek gaingitu nahi baditu, kostua bere gain hartu beharko du.

